

## Agurra

Iritsi da 2012 urtearen amaiera eta esku artean duzu aurtengo urtekaria. Bertan Hernani herriari buruzko hainbat lan interesgarri topatuko dituzu beste hainbat herritarrek bere borondate onarekin landu eta idatzitakoak.

Aurtengoan ere gure herrian baditugu aipagarriak diren gertaerak. Esparru ezberdinetan dugu zeresana eta zer idatzia. Kulturgintzan, eta kantagintzan zehatzago, azkenaldian berri ona jaso dugu hainbat lehiaketetan, hainbat hernaniarrek jasotako sariak direla eta; kirol munduak, urtero bezala, momentu onak eta ospakizunetarako aukera eman digu; aipagarria euskararen kale neurketaren emaitzak hernaniarrok euskaraz gehiago egiten dugula diotenak; normalizazio politikorako bidean EAEko legebiltzarrerako hauteskundeak izan ditugu eta hernaniarrok ere kolore politiko guztiak ordezkatzeko dituen legebiltzarra aukeratzeko hitzordua izan dugu; hainbat herritar etxean ditugu... eta beste hainbat urteurren, ospakizun eta notizi. Ezin denak hemen jaso.

Ez dute garrantzi gutxiagorik, eta aipatu nahi ditugu ere bai, kantu txapelketetan parte hartu duten guztiak; Hernanin kirola egiten duten guztiak, konpetitu edo ez, irabazi edo galdu; euskara hitz egin ez, baina ahaleginean ari diren herritarrek; hauteskundeetan parte hartu ez dutenak; oraindik herrian ez daudenak...

Bukatzeko, eskerrak eman urtekaria argitaratzeko lanean aritu diren guztiei. Aurtengo gure herriko kronika jasotzen laguntzeagatik. Hemen jaso dituzue herriko hainbat istorio.

Gozatu irakurraldiarekin.

*Hernaniko Udal Gobernu Taldea*